

Ekonomi Jardueren gaineko Zerga kudeatzeko arauak ezartzen zituen azaroaren 16ko 2010/120 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko, honekin batera bidaltzen zaio Udal horri 2020 ko ekitaldiko Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagokion Matrikula (salbuetsita ez dauden eta udal kuotengatik agertzen diren subjektu pasiboak).

Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagokion 6/1989 Foru Dekretuari atxikiz eta 3/2015 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, interesdunek otsailaren azken 15 egun naturaletan Bizkaiko Lurralde Historikoko Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Matrikula aztertzeko sarbidea izango dute Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian, bertan izaera pertsonaleko datuak behar bezala zaintzen direla ziurtatzeko identifikazio datu batzuk eskatuko direlarik.

Aipatutako Zergaren matrikulan, interesatuek, bidezkotzat jo izanez gero, birjarpen-errekurtsoa jarri ahal izango dute Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan bertan, edo ekonomia-administraziozko erreklamazioa Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, bi errekurtsok batera ezin aurkez daitezkeelarik. Bietarako hilabete bateko epea izango dute, erakustaldia amaitu eta hurrengo egunean hasita.

Azkenik, Udal korporazio horri matrikularen erakusketari dagozkion igarpenak BEO eta prentsari bidali zaizkiela jakinarazten zaio.

Bilbao, 2020ko otsailaren 13a


En cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto Foral 120/2010, de 16 de noviembre, por el que se dictan las normas para la gestión del Impuesto Sobre Actividades Económicas, adjunto se remite a ese Ayuntamiento la Matrícula correspondiente al Impuesto sobre Actividades Económicas del ejercicio 2020 (sujetos pasivos no exentos incluidos por cuotas municipales).

De conformidad con lo previsto en el Texto Refundido de la Norma Foral 6/1989 del Impuesto sobre Actividades Económicas, según la redacción dada por la Norma Foral 3/2015, durante los últimos 15 días naturales del mes de febrero los interesados que lo deseen podrán consultar la Matrícula correspondiente al Impuesto sobre Actividades Económicas de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia. Para ello, deberán acceder a la página de Internet de la Diputación Foral de Bizkaia a través de formularios de consulta que requerirán de la aportación de una serie de datos identificativos, a los efectos de garantizar la adecuada protección de los datos de carácter personal.

Contra el acto de inclusión o exclusión en la Matrícula del impuesto mencionado o de variación de los datos contenidos en la misma, podrán interponer recurso de reposición ante la Jefa de Servicio de Tributos Locales y Censos Fiscales, en el plazo de un mes, a contar desde la finalización del plazo de exposición mencionado, o reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral en el mismo plazo, sin que puedan interponerse simultáneamente ambos recursos.

Por último, se comunica a esa Corporación que se han remitido los anuncios de exposición al B.O.B. y a la prensa.

Bilbao, a 13 de febrero de 2020



Ogasuneko Zuzendari Nagusia
El Director General de Hacienda